



Idazkaritza-Kontuhartzaileta

2020/10/20an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 20/10/2020.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaistoa Aguiriano

Idazkaria

Edurne Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko urriaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ez Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Eluska Irazu Henández, Ander Errarte del Pozo, Purificación Regidor Varela eta, heriotza dela eta, Iñaki Kerejeta Gorostiza.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 20 de octubre de 2020 , en el quedó constituido el de la Corporación en sesión extraordinaria, bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten Eluska Irazu Henández, Ander Errarte del Pozo , Purificación Regidor Varela y, por fallecimiento, Iñaki Kerejeta Gorostiza.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAAB5T7L.RSYd>

**2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario**

1.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.

Gai zerrendako gaiak aztertu aurretik, Alkateak, ondorengo hitzak esan ondoren, Iñaki Kerejeta Gorostiza zinegotziaren heriotzagatik minuto bateko isilunea gordetzea eskatu du: “*Gaurko batzordea albiste gogor eta triste batekin hasi behar dugu. Bide lagun aparta izan dugun Iñaki hil da. Heriotz goiztiar guztiak moduan guztiontzat oso gogorra.. Hutsune handia uzten du. Goian Bego*”.

Minutuko isilunea igarota, 2020ko urriaren 13ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

2.- OSASUN LARRIALDI EGOERAK DIRAUEN BITARTEAN KIDE ANITZEKO ORGANOEN BILKURAK PRESENTZIALAK EDO TELEMATIKOAK IZATEKO ERABAKIA.

Udalbatzarrak erabaki bat hartu zuen 2020ko apirilaren 2an, eta horren xedapen zatia transkribatzen da hitzez hitz ondoren:

LEHENENGOA.- Zinegotziek urrutitik, bideokonferentzia bidez edo antzeko beste prozedura baten bidez, parte hartu ahal izango dute Eskoriatzako Udaleko Osoko Bilkuraren eta batzorde informatzaileen bileretan Covid-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoerak irauten duen bitartean.

BIGARRENA.- Saioetan urrutitik parte hartzeko sistemak bete behar dituen funtsezko bermeak honako hauek izango dira:

- Bi norabideko komunikazioa egotea igorlearen eta hartzalearen artean, eta aldi berekoia izatea, biek batera emititu ahal izateko.
- Komunikazio hori, gutxienez, hauetako alderdi batean izatea: ikusmenezkoa, entzumenezkoa edo ahozkoa; horrela, komunikazioa etentzat joko da alderdi guztietan eteten denean.
- Nolanahi ere, aurrez aurreko eskubide eta betebehar berberekin parte hartu ahal izatea bilkuran urrutitik, Konstituzioaren 23. artikuluan aitortutako eskubideak erabat bermatzeko.

HIRUGARRENA.- Udalbatzaren eta batzorde informatzaileen bilkuretan urrutitik parte hartzeko bideokonferentzia-sistema bat edo antzeko prozedura bat erabiliko da, zinegotziengintzaren nortasuna, bilkuran aztertu beharreko gaien eztabaidean parte hartzea, beraien adierazpenen edukia, botoaren nondik norakoa eta botoa emateko askatasuna bermatzeko.

Arazo teknikoak direla eta, gai bat buruzko eztabaidean zehar edo bozketa zehar komunikazioa eteten bada aurreko puntuau aurreikusitako edozein alderditan, eta komunikazio hori ezin bida berrezarri, etenaldiaren eraginpeko zinegotzia bilkuran ez dagoela joko da, ez baitago ziurtasunik bilkuraren zati horretan egon denik esateko, eta toki-araubideari buruzko legeria aplikatuko da gai horri dagokionez.

LAUGARRENA.- Parte hartzeak. Bilkuretan parte hartzeko hurrenkeria ohikoa izango da; horrela, urrutitik parte hartzen dutenek bilkuran bertan egongo balira parte hartuko luketen hurrenkeria berean parte hartuko dute.

BOSGARRENA.- Bozketak. Bilkuretan erabili ohi diren eta Udal Erregelamendu Organikoan jasota dauden bozketa-sistemetako bati jarraituz egingo dira bozketak. Kasu horietan, bozketa modu berean egingo da bertaratzten diren zinegotzientzat eta urrutitik ari direnenetzat.

SEIGARRENA.- Erabaki horiek hartzen diren unean sartuko dira indarrean, eta indarrean egongo dira alarma-egoerak dirauen bitartean.

Transkribatutako akordioaren SEIGARREN atalaren arabera, kide anitzeko organoek alarma-egoerak indarrean zirauen bitartean baino ezin zuten saio telematikorik egin.

Aurreko gorabehera, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuak, COVID 19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagariak hartzen dituenak, azken xedapenetatik bigarrenaren bidez aldatu zuen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 46. artikulua, 3. puntu bat sartuz, eta bertan hitzez hitz esaten denetik ondorioztatzen da toki-erakundeetako kide anitzeko organoek bilerak egin dezaketela eta urrutitik erabakiak hartu bitarteko elektroniko eta telematiko bidez, baldin eta "toki-erakundeetako kide anitzeko organoek bilkuren araubide presentzialaren funtzionamendu normala neurriz kanpo eragozten edo zaitzen duten ezinbesteko egoerak, arrisku kolektibo larriko egoerak edo katastrofe publikoak gertatzen direnean".

Akatsa litzateke alarma-egoeraren amaitura pandemiaren amaierarekin identifikatzea.

Behin alarma-egoera amaituta, oraindik ere kutsatzeko arrisku handia dago, eta interpreta daiteke TAOLen 46. artikuluko 3. puntuaren aurreikusitako "arrisku kolektibo larria" dagoela. Horren froga, Euskadiko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak ebazpen bat eman zuela 2020ko abuztuaren 14an, eta, ebazpen horren bidez, deklaratzen zuela alarma-egoeraren ondorengo egoera epidemiologikoaren eta nazioarteko aurretiko esperientziaren ondorioz, eta baita Osasunaren Mundu Erakundeak emandako gomendioen ondorioz ere, epidemiaren eraginak eta Euskadiko Osasun Sisteman antzemandako eraginak eskatzen dutela kontuan hartza osasun publikoko larrialdi baten aurrean dagoela Euskadi, eta larrialdi-testuinguru horretan, ezohiko eta premiazko neurriak hartu behar direla birusaren hedapena geldiarazteko Euskal Autonomia Erkidegoan.

Udaletxeko bilera aretoen konfigurazio fisikoak zaildu egiten du indarrean dauden osasun-neurriek eskatutako distantzia soziala bermatzea zinegotzien artean osoko bilkuretarra edo batzorde informatzailetara joaten direnean, eta baita horietara doazen herritarren arteko distantzia ere.

Koronabirusagatik kutsatuak dauden bitartean, eta horiek herrian eragina izan, beharrezkoa da kide anitzeko organoek bilkuretako afora murriztea pertsonen segurtasuna bermatu ahal izateko; are gehiago, bi taldeetan (zinegotziak eta herritarrak) koronabirusaren aurrean arrisku handia (60 urtetik gorakoak, arnas aparatuko edo bihotzeko gaixotasunak, defentsa-maila txikia, minbiziaaren aurkako tratamendua, eta abar) duten pertsona kopuru nabarmena baldin

badago, horregatik, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailearen egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aintzat hartzea, COVID 19ak eragindako gaur egungo osasun-larrialdiko egoera honetan, oraindik ere osasun eta segurtasun publikorako arrisku larria dagoela Eskoriatzan.

BIGARRENA.- Osoko Bilkurak 2020ko apirilaren 2an hartutako erabakiaren baliozkotasuna luzatzea arrisku-egoerak dirauen bitartean, eta, ondorioz, xedatzea udal honetako kide anitzeko organoen bilkurak modu telematikoan egin ahal izango direla, osorik edo zati batean, betiere horien funtzionamendu demokratikoa eta eraginkorra bermatzen bada eta zinegotzien eta herritarren parte hartzeko eskubidea erabat errespetatzen bada.

3.- TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANORAKO PROPOSAMENA 2021. URTERAKO.

AGITAXek egiten duen proposamena ikusita, hau da, 2020an indarrean dauden taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2021erako mantentzea, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzailearen diktamenarekin bat etorriz, Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- 2020. urtean indarrean zeuden taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak mantentzea 2021. urtean.

4.- ESKORIATZAKO UDALARI KIROL ARLOAN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN INDARRALDIAREN LUZAPENA.

2016ko urriaren 18an kirol arloko zerbitzuak emateko kontratua esleitu zitzaion E-GOITEK S.L. enpresari ondoren esango den esleipen prezioan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistaren proposameneko zehaztapenen pean:

- Kirol jarduerak eta ikastaroak emateko zerbitza: 24,97 € orduko gehi % 21eko BEZari dagozkion 5,24 euro.
- Kontratuaren xede diren gainerako zerbitzuak: 169.560 € urteko gehi % 21eko BEZari dagozkion 35.607,6 euro.

2020ko uztailaren 29an kontratu berriaren lizitazio iragarkia argitaratu da, eta ikusi da hasierako kontratua amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratu dela, kontratua urriaren 31n amaitzen baita.

Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako udaletan hainbat gestio egin arren, oso zaila izan da eta denbora behar izan da hiru enpresa lizitatzaleek aurkeztutako eskaintzei buruz txostena egin dezaketen arlo horretako teknikari profesionalak lortzea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikuluak aurreikusten du kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratacio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoia daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko dela kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.

Esandako guztiarengatik, Kultura eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako Udalerriki kirol arloan zerbitzuak emateko E-GOITEK S.L. enpresari esleitutako administrazio kontratuaren indarraldia luzatzea administrazio-kontratu berriaren lizitazioa amaitu arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikulan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Dagokion gastua baimentzea eta xedatzea Udal honetan indarrean dagoen aurrekontu orokorraren 0400.227.342.20.16 aurrekontu aplikazioaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau enpresa kontratistari jakinaraztea.

5.- 2021erako ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Bertaratutako udalbatzarkide guztiekin ezagutzen dute Personal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena, eta hitza eman ondoren, laburbilduz, honako parte hartze hauek izan dira:

Josu Ezkurdia: Zerga guztiak mantentzea planteatzen da: OHZ, ibilgailuak, jarduera ekonomikoak eta abar. Dena den, berritasun bat dago uraren tasari dagokionez. Aurretik hartutako akordioaren arabera, urriaren 1etik aurrera ur horniduraren kudeaketa Ur Kontsortzioaren esku geratu da; eta eskuordetze horren ondorioetako bat da hemendik aurrera zerbitzu hori emateagatiko tasa Kontsortzioak ezarriko duela, eta ez Udalak. Hala ere, aldaketa horrekin zer abantaila izango ditugun gogorarazi nahi dut: kontsumo txikiko etxebizitzetan, ordaindu beharreko kopurua % 8 inguru murriztuko da, eta kontsumo handiko kasuetan, tarifa handiagoak ordaintzen jarraituko dute. Erabiltzaileentzako zerbitzua eta arreta hobetuko dira, eta horren bermea da Kontsortzioak urte asko daramatzala zerbitzu hori modu publikoan kudeatzen. Gainera, Eskoriatzako Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Kontsortzioak konpromisoa hartu du 1.000.000 euro inbertitzeko azpiegitura hobetzeko, ia ezinezkoa izango litzatekeena gure Udalarentzat, eta, gainera, banaketa-sare berria ezarriko du Marinen eta Zarimutzen, 300.000 eta 400.000 euro arteko inbertsioa ekarriko duena. Hori esanda, eta

gainerako tasei dagokienez, esan behar da hondakinak biltzeagatiko tasa % 4,1 igotzea planteatzen dela, eta horrela dela Mankomunitateak, zerbitzu hori ematen digunak, igoera hori ezarri digulako. Horrek, urte osoan 5-6 euro inguru igotzea ekarriko du. Eta azkenik, nahiz eta funtsezko zerbitzuei ez erantzun, tasak direnez ere, kirolegiari dagozkionak daude. Urteko abonua igotzea planteatzen da, familiaren abonurako urtean euro 1 inguruko gehikuntza ekarriko duena. Eta, gero, koronabirusaren pandemiagatik hartu beharreko prebentzio-neurrien ondorioz, kirol-jardueren kuotak ere igo behar ditugu; hala ere, saio bakoitza ez da euro bat baino gehiago igoko. Eta horri EH BILDUk egindako ekarpenetatik eratorritako proposamenak gehitu behar zaizkio: bata, langabetuei kirodegiko tasen igoera ez aplikatzea; eta bestea, "Elizateetatik" egin zitzagun eskariarekin bat datorrena, udal-baskulan pisatzeagatiko tasan % 95eko hobaria aurreikustea Eskoriatzan kokatutako nekazaritza-ustiategien titularrei.

Nestor Arana: Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu gure ekarpenak aintzat hartzeagatik. Gure ustez, uraren hornidura-zerbitzuaren gaia aldez aurretik erabakita dago, baina planteatu duzuenez, uste dut azpimarratzeko dela baliabide natural baten kontsumo jasangarria sustatzeko aukera galdu dugula. Ados gaude zerbitzuaren kudeaketa Kontsortzioak egitearekin, baina uste dugu uraren kontsumo jasangarria sustatzearen aldeko politika egiteko aukera galdu dela. Gure kalkuluak egin ditugu eman dizkiguzuen zenbakiekin, eta guk ondorioztatu dugu, zuk esan duzun bezala, gutxien kontsumitzen dutenek orain baino gutxiago ordainduko badute ere, hori 20 m³-rainoko kontsumoetan bakarrik emango dela, 20 eta 80 m³ artean kontsumitzen dutenek gehiago ordainduko dutela, eta 80 m³ baino gehiago kontsumitzen dutenek orain baino gutxiago ordainduko dutela. Orduan, gure zenbakien arabera, gehien kontsumitzen duten erabiltzaileen % 25ek orain arte baino gutxiago ordainduko dute. Mankomunitateak egiten duen hondakinen bilketa zerbitzuari dagokionez, ulertu dugu proposatzen den igoerarekin iaztik datorren defizita konpentsatu nahi dela, ez baitzen zerbitzuaren kostua estaltzera ere iritsi. Guk planteatzen duguna da hondakin gutxiago sortzen dituen sektoreari laguntea, eta, gaur egun, horretarako ikusten dugun modu bakarra konpostajea sustatzea da; badakigu hobari bat dutela, baina konpostatzen duenari "keinu" gisa ikusten dugu tarifa ez igotzea. Proposamena ildo horretatik doa, hondakinen kudeaketa oso garestia dela eta gero eta hondakin gutxiago sortzera jo behar dela gizarteratzeko. Lehen sektoreari dagokionez, ondo esan duzun bezala, gure proposamena onartu da sektore horren aldeko keinu gisa. Eta, azkenik, guretzat oso garrantzitsua den beste puntu bat dago: gazteei emantzipazioa erraztea. 2008ko krisian gazteria oso kaltetua izan zen eta orain ere kaltetua izango dela uste dugu. Ikusi besterik ez dago 2008ko langabezia-tasa, eta orain ere oso kezkatuta gaude. Eta uste dugu horrekin oso lotuta joango dela drogen kontsumoaren igoera. Eta dagoeneko eskatzen dugu gizarte-zerbitzuek azter ditzatela horren causak. Susmoa dugu horietako bat etorkizunerako ilusiorik edo itxaropenik ez izatearena ote den. Horregatik, emantzipazio horri laguntzeko politika egiten hasi nahi dugu, eta ordenantza fiskalen kasuan horretarako aukera ikusten dugu, bigarren etxebizitzena derrigortuta. Eta, azkenik, eta horrela onartu duzue, langabetuei kirodegiko kuotak ez igotzea planteatzen genuen; izan ere, oraindik ez dakigun arren zein neurritan eragingo duen koronabirusak, langabezia-tasa igoko dela eta soldatak jaitsiko direla aurreikusten da, eta jakina da harreman handia dagoela osasunaren eta kirolaren artean. Laburbilduz, eskerrak eman nahi dizkizuegu onartu dizkiguzuen proposamenengatik, baina uste dugu aurrerapauso gehiago eman beharko liratekeela uraren

kontsumo jasangarria lortzeko, hondakin gutxiago sor dadin sustatzeko, kirola egitea sustatzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko. Horregatik guztiagatik, gure bota kontrakoa izango da.

Laburpen gisa, Josu Ezkuriak erantzun dio gaur egun ur-horniduraren sarea ez dagoela oso egoera onean, ur asko galtzen dela eta jasangarritasun-politika batetik egin beharreko jardueretako bat Kontsortzioaren gainean egotea izango dela, matxurak konpontzeko eta alferrikako ur-gastuarekin amaitzeko. Jarraian, datu batzuk eman ditu, Kontsortzioaren tarifekin gutxiengastatzen duenak orain baino gutxiago ordainduko duela eta gehien gastatzen duenak tarifa altuagoak ordaintzen jarraituko duela frogatzeko. Halaber, jakinarazi du kasu batzuetan bizikidetza-unitate batzuek orain baino gehiago ordainduko dutela kontsumoagatik, duten kide kopuruagatik ur gehiago kontsumituko dutelako, eta horrek tarte handiagoetako tarifik aplikatzea eskatzen duelako; eta, kasu horietarako, gastuaren % 20ra arte finantzatzeko laguntzak deitza proposatu dela jakinarazi du. Hala ere, gaineratu du Kontsortzioak aplikatuko dituen tarifik ez direla soilik kontsumoaren araberakoak izango, bizikidetza-unitateko kide-kopuruak ere kontuan hartuko direla. Konpostajea egiten dutenei hondakinen bilketaren tarifa ez igotzeko proposamenari dagokionez, adierazi du gaur egun Udala konpostajea bultzatzeko politika bat egiten ari dela, eta horren froga dela San Pedron horretarako gune bat prestatuko dela, eta konpostajea egiten dutenek badutela tarifa baxuagoa, baina, ondo esan duzun bezala (Nestorri buruz ari da), kontua da hondakinik ez sortzea sustatu behar dela, eta konpostajearekin ez dira hondakinak murritzten, sortutakoei beste tratamendu bat ematen zaie. Kirodegiko tarifen igoerari dagokionez, pandemiaren ondorioz hartsu beharreko segurtasun-neurriek eragin dutela esan du. Eta gazteek etxebizitzaz eskuragarririk ez izatearen arazoari dagokionez, aitortu du egia dela, arazo bat dagoela, baina iaz, ordenantza fiskalak aztertu zirenean, EH BILDUK ere iruzkin bera egin zuela eta batzordera proposamen zehatz bat eramateko esku zitzaiola; urtebete igaro dela eta ez dutela ezer aurkeztu. Nestorri zuzendu zaio, eta esan dio ideia oso polita dela, baina ideia bat baino ez dela, lagundu daitekeen moduari buruzko proposamen zehatz eta egingarri bat egin dezatela, proposamen hori batzordera eraman dezatela, azter eta eztabaidea dadin, eta ez daitezela azken orduan osoko bilkurara ideiekin bakarrik etorri.

Ondoren, Nestorrekin berriz ere esan du, emandako datuekin egin dituzten kalkuluen arabera, ez direla Josuk ateratako ondorio berera iristen ur-hornidurako zerbitzuaren erabiltzaileek ordainduko dituzten kopuruei dagokienez; beraiek ikusten dutenaren arabera, bigarren tartetik aurrera ordaindu beharreko kopurua handiagoa izango dela Udalak zituen tarifekin ordaintzen zena baino, eta zenbat eta gehiago kontsumitu tarifik ez direla Udalarenak bezain garestiak izango, eta, beraz, uraren kontsumo jasangarrirako politika egiteko aukera galtzen ari dela.

Eztabaidea amaitu ondoren bozketa egin da.

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, EH BILDUko bi zinegotziek aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako bost udalbatzarkidek alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea 2021erako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinean aurreikusitako moduan.

Bigarrena.- Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

Hirugarrena.- Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

6.- 15. ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA.

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 15. expedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako expedientea aplikagarri zaion araudiai egokitzten zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Personal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bozkatu ostean, eta bertaratutako udal batzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Udal honetako aurrekontuari dagozkion kredituak aldatzeko 15. expedientea onartzea, horretarako egindako proposamenean zerrendatzen diren aurrekontuetako gastu partiden arteko transferentzia bidez, eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera.

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0500.481.431.00.01 2020	DIRULAGUNTZA MERKATARITZA	7.160,00	600,00	6.560,00

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

	GUZTIRA	7.160,00	600,00	6.560,00
--	----------------	-----------------	---------------	-----------------

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0500.481.433.00.01 2020	DIRULAGUNTZA.TOKIKO GARAPENA	400,00	600,00	1.000,00
GUZTIRA		400,00	600,00	1.000,00

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

Bigarrena.- Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

7.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Kultura eta Kirolak batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK hasiera batean onartzea.

Bigarrena.- Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan. Aipatutako epearen amaiera larunbata edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, oinarri horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

Laugarrena.- Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako dirulaguntzearako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:40an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiatzatzen dut.

ERANSKINA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINeko ZERGA

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.

JARDUERA EKONOMIKOAREN GAINeko ZERGA

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGA

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.

HIRI-LURREN BALIO IGOERAREN GAINeko ZERGA.

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU, HONAKO TASAK EZIK:

- **HONDAKIN BILKETA. %4,1 igo**

- **KIROLDEGIA.** Abonuak %2,5 igo Ikastaroak %20 igo (igoerarekiko salbuespenak: langabetuak)
- **UDAL-BASKULA ERABILTZEAGATIKO TASA** aldatu eta aurreikusi tarifa berezi hau: Pisaldi bakoitzeko,Gipuzkoako nekazaritzako ustiategien erregistroan Eskoriatzako ustiategi bateko titular gisa inskribatuta daudenek: 0,20 €

1 ERANSKINA

HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK

2 ERANSKINA

JARDUERA ZABALTZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO EDO, HALA BALITZ, KONTROL JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASA

3 ERANSKINA

HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

4 ERANSKINA

UDAL HILERRIKO ZERBITZUENGATIKO TASA

5 ERANSKINA

TAXI LIZENTZIEN TASAK

6 ERANSKINA

Mankomunitateko zerbitzuak: hiri hondakin solidoa jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko tasa

Aldaketak:

8. artikulua. Tarifikak, baliokidetasunak eta irizpideak

Zergadun bakoitzak bere kategoriari dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzaren tasak ondoren adierazten den baliokidetasuna dauka 1.1 tarifarekiko.

		LANGILE		SEHILEKO
--	--	---------	--	----------

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

KATEGORIA	TARIFA	KOPURUA	BALIOKID ETASUNA	TASA
				€
1. Etxebitzitzak	1.1. Arrunta.	-	1,00	57,98
	1.2 Organikoa kudeatzen duten guneak	-	0,4	23,20
	1.3 Ekarpen guneko erabiltzailea.	-	0,75	43,49
	1.4 Ekarpen guneko erabiltzaile konpostatzailea.	-	0,50	28,99
2. Biltegi eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	176,79
	2.2	≤5	5,30	294,64
	2.3	≤15	10,60	589,27
	2.4	>15	15,90	883,92
3. Ostalaritza, elikagaiak eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	235,71
	3.2	≤5	7,95	441,87
	3.3	≤15	13,25	736,59
	3.4	>15	18,55	1031,58
4. Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤2	3,18	176,78
	4.1	≤5	8,48	471,40
	4.2	≤15	15,90	883,92
	4.3	≤50	21,20	1178,56
	4.4	≤100	26,50	1473,20
	4.5	≤500	31,80	1767,84
	4.6	>500	37,10	2062,48

5. Aurrez hitzartutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	1178,54
---	-----	---	-------	---------

7 ERANSKINA

UR HORNIKUNTZA ESKAINTZEAGATIKO TASA

8 ERANSKINA

ESTOLDERIA, ETA KONTADOREAK MANTENDU ETA IRAKURTZEAGATIKO TASA

9 ERANSKINA

KIROL INSTALAZIOAK ETA KIROL ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TASA

KIROLDEGIKO TARIFAK 2021						
	ERROLDATUAK			EZ ERROLDATUAK		
	Hilabetekoak	Hiruhilekoak	Urtekoak	Hilabetekoak	Hiruhilekoak	Urtekoak
BANAKAKOA						
6-18 urte	11,00 (11,02)	17,30 (17,32)	64,20 (64,22)	17,00 (16,30)	22,00 (21,53)	86,00 (85,33)
> 18 urte	16,30	37,40 (37,41)	117,50 (117,47)	22,00 (21,53)	43,00 (42,69)	150,00 (149,60)
Langabetuek (>3 hilabete)	15,90	21,00	-----	17,00 (16,30)	22,00 (21,53)	-----
Ikasleek (25 urte arte)	16,30	21,50 (21,53)	85,30 (85,33)	17,00 (16,30)	22,00 (21,53)	86,00 (85,33)
Ezgaituek (>% 33a)	16,30	21,50 (21,53)	85,30 (85,33)	17,00 (16,30)	22,00 (21,53)	86,00 (85,33)
> 65 urte*	16,30	21,50	85,30	17,00	22,00	86,00 (85,33)

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
 Pleno extraordinario

		(21,53)	(85,33)	(16,30)	(21,53)	
> 80 urte*	-----	-----	-----	17,00 (16,30)	22,00 (21,53)	86,00 (85,33)
Kirol Elkartea		5,80 (5,79)			11,00 (11,02)	
FAMILIAKOA: 18 urtetik beherako seme-alabak, edo langabezian edo ikasten dauden 25etik beherakoak sartzen dira. 6 urtetik beherakoek, bazkide diren gurasoak badituzte, ez dute sarrerarik ordainduko.						
Normala	26,80	48,00 (47,92)	160,00 (160,11)	43,00 (42,69)	75,00 (74,83)	195 (192,24)
Familia ugaria, bikoteko bat langabezian (>3 hilabete), familia monoparentala edo 65 urtetik gorako bikoteak	23,80 (23,73)	39,50 (39,46)	128,00 (127,97)	38,00 (37,41)	54,00 (53,71)	145,00 (144,32)
Biak langabezian (>3 hilabete)	15,90	26,10 (26,15)	-----	17,00 (16,30)	27,00 (26,80)	-----
AURRE Matrikula	11,30 (11,24)	Hileko eta hiruhileko tarifa guztietan hasieran eta jarraipenik ez dagoenean.				

* **>65 eta >80 urtekoak:** Hileko eta hiruhileko abonuetan jubilatu tarifa onartuko da abonu denbora horretan 65 edo 80 urte betetzen baldin badira. Urteko abonuan onartuko dira ere +65 edo +80 bezala adin hori urte naturalean betetzen dituztenak.

EGUNEKO SARRERRA	
6-18 urte	3
> 18 urte	5

Langabetuak eta ezgaituak	3
10 SARRERAKO BONOA	
< 18 urte	25
> 18 urte	45
100 SARRERAKO BONOA	
	310
BESTE BATZUK	
Karneta berriztatzea edota ikastaroetarako karneta egitea	5
Dutxa	10

	ERROLDATUAK		EZ ERROLDATUAK	
ALOKAIRUAK (ordu bete)	Argi gabe	Argiarekin	Argi gabe	Argiarekin
Kiroldegiko kantxa	25	30	40	50
Kiroldegiko kantxa (egun osoa)			1.100	
Kiroldegiko kantxa (egun erdia)			650	
Minifrontoia			8,00	

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
 Pleno extraordinario

Pilotalekuko kantxa	8,00	12,00	10,00	15,00
Pilotalekuko gimnasioa			30,00	
Igerilekuko kale bat			100,00	
Igerileku osoa			400,00	

Orduka alokatutakoan, bazkide ez diren parte hartzaleek sarrera ordaindu beharko dute.

Alokatzerakoan ordaindu beharreko fidantza:

Epe baterako alokairuak.- Ordenantza fiskaletan lokal horretarako ezarritako hilabete bateko alokairuaren prezioa aurreratuko da, alokatutako udal lokala erabiltzeko epea amaitutakoan itzuliko dena.

Unean uneko alokairuak.- Ordenantza fiskaletan lokal horrentzako ezarritako tarifaren %10 ordaindu beharko da.

Erreserbak kobratzekeko modua eta baja eskaera

Kobrantzak hilaren azkenean kargatuko dira erabiltzaileak emandako kontuan.

Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldegin. Alokatutako instalazioa, aurrez baja eskatu gabe, ez erabiltzeak ez du salbuetsiko instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik.

Kirol ekintzen tarifikak	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
	HILEKO TARIFAK	HILEKO TARIFAK
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, Iuzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	44,00 (44,04)	57,00 (56,70)
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, Iuzaketa globaletako		

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
 Pleno extraordinario

beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	33,20 (33,18)	42,00 (41,64)
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, 2 egun, 30'	22,30 (22,32)	29,00 (28,38)
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 60'	22,30 (22,32)	29,00 (28,38)
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 45'	16,30 16,32)	19,00 (18,72)
Wellness: pilatesa, k-strechta, GAH, luzaketa globaletako beste metodoak eta antzeko jarduerak, egun 1, 30'	11,20	15,00
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	38,00 (38,04)	51,00 (50,10)
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	30,80 (30,78)	40 (39,24)
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, 2 egun, 30'	20,00 (19,93)	26,00
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 60'	20,00 (19,93)	26,00
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 45'	15,10 (15,12)	18,00 (17,52)
Fitness, entrenamendu funtzionala (spinninga, body tonoa, zumba, body balanzea) eta antzeko jarduerak, egun bat, 30'	10,00	13,00

Gazte ekintzak: spinninga, zumba eta antzerakoak, 2 egun, 60'	36,80 (36,78)	49,00 (48,85)
Gazte ekintzak: spinninga, zumba eta antzerakoak, egun bat, 60'	18,80 (18,72)	25,00 (24,72)
Gazte ekintzak: spinninga, zumba eta antzerakoak, 2 egun, 45'	27,60	37,00 (36,65)
Gazte ekintzak: spinninga, zumba eta antzerakoak, egun bat, 45'	14,00 (14,04)	19,00 (18,60)
Erorikoen prebentzia, 2 egun, 60'	19,90 (19,92)	26,00 (25,98)
Erorikoen prebentzia, 2 egun, 45'	14,90 (14,94)	20,00 (19,50)
Erorikoen prebentzia, egun bat, 60'	10,00	13,00
Erorikoen prebentzia, egun bat, 45'	7,70 (7,74)	11,00 (10,02)
Behar bereziak dituzten pertsonentzako gimnasia, 2 egun, 60'	19,90 (19,92)	26,00 (25,95)
Behar bereziak dituzten pertsonentzako gimnasia, 2 egun, 45'	14,90 (14,94)	20,00 (19,50)
Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, 2 egun, 60'	38,10 (38,04)	51,00 (50,10)

Running, patinajea, nordic walkinga eta antzeko jarduerak, 2 egun, 45'	30,80 (30,78)	40,00 (39,18)
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, 2 egun, 60'	38,10 (38,04)	51,00 (50,10)
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, 2 egun, 45'	30,80 (30,78)	40,00 (39,24)
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, egun bat, 60'	19,90 (19,92)	22,00 (21,50)
Aquagyma, aquafitnessa, aquarunninga eta igeriketa helduak, egun bat, 45'	15,10 (15,12)	18,00 (17,52)
Igeriketa umeak 2-4 urte, egun bat, 30'	11,40 (11,46)	14,00 (13,92)
Igeriketa umeak, 2 egun, 30'	22,30 (22,32)	29,00 (28,38)
Igeriketa umeak, egun bat, 60'	22,30 (22,32)	29,00 (28,38)
Igeriketa umeak, egun bat, 45'	16,90 (16,92)	22,00 (21,18)

1.- Plaza erreserbatuta geldituko da izen emate orria behar bezala beteta entregatutakoan.
Dokumentua posta elektronikoz bidali daiteke kirdegia@eskariatza.eus helbidera.

2.- *Ikastarorako ordaindutako dirua bakar-bakarrik jarduera ez bada egiten itzuliko da.*

3.- *Behin talde bat martxan hasiz gero hiruhilekoren batean, ikastaroa ikasturte osoan emango da, betiere, jarduera horretarako ezarritako jende kopuruaren %80a bermatzen bada gutxienez. Kontuan izango dira ikastaroan parte hartzen dutenen adina, jarduera bera beste orduren batean egotea, taldeak erabili behar zuen ordutegian egon daitekeen eskaintza, zenbat falta den ikasturtea amaitzeko eta ikastaroa nori zuzenduta dagoen.*

4.- *Baja eman nahi denean, aurreko hilaren 25a baino lehen entregatu beharko da baja eskaera kiroldetean.*

5.- *Alta hilaren lehenengo hamabostaldian eginez gero, ikastaroaren hilabete osoa kobratuko da. Aldiz, alta bigarren hamabostaldian eginez gero, hilabete erdia kobratuko da.*

HASTAPENAK	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
2 saio (spininga, body tonoa, zumba, GAH, pilatesa, body balanzea...)	0	0
4 saio (pilatesa)	22,30 (22,32)	29 (28,38)

BEHERAPENAK

Ikastaroetan parte hartzen duten 6 urtetik beherako haurren hilabeteko kuota, beraien arduradunetako bat baziak bida, abonatuarena izango da.

Langabetuak %20ko deskontua izango dituzte ikastaro guztietai

Fitness – wellnesss ekintzetan, 2. ekintzatik aurrera: %50eko beherapena merkeenean (ekintzetako bat, gutxienez, 2 eguneko izan behar da)

	ABONATUAK	EZ ABONATUAK
5 egun, 5 ordu eguneko (6 – 12 urte)	36,80 (36,78)	42,00 (41,64)
9 egun, 4 ordu eguneko (13 – 16 urte)	60,30	74,00 (73,62)

* Anai-arreba bakoitzeko 6 €-ko beherapena

10 ERANSKINA

**HIRI TRAFIKOA ANTOLATZEKO ETA KONTROLATZEKO JARDUERA BEREZIAK
EGITEAGATIK (IBILGAILUEN ZIRKULAZIOAERRAZTEKOAK ETA UDALTZAINGOAREN
OHIKO TRAFIKOAREN SEINALEZTAPEN ETA ANTOLAKETAZ BESTELAKOAK)
ORDAINDU BEHARREKO TASA**

11 ERANSKINA

UDAL MUSEO-ESKOLA ZERBITZUAREN TASA

12 ERANSKINA

UDAL-BASKULA ERABILTZEAGATIKO TASA

UDAL BASKULA ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA FISKALA

ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA

1.-. artikulua. ZERGAGAIA.

Tasaren zergapeko egitatea udal-titulartasuneko baskula publikoan pisatze automatikoko zerbitzua ematea da.

2.-. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK.

Tasa ordaintzera behartuta daude, zergadun gisa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak udal baskula publikoan pisatze automatikoko zerbitzua jasotzen dutenean.

3. artikulua.- KUDEAKETA ARAUAK.

Baskula erabiltzeko, fidantza jarri eta giltza bat emango da.

Fidantza hori itzuliko da zerbitzuaren erabiltzaileak Udalerri giltza itzultakoan.

Giltza ez itzultzeak automatikoki ekarriko du fidantza galtzea.

Urtean 6 pisaldira arte:

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

Zerbitzua eskatzen denean hasten da ordaintzeko betebeharra. Zerbitzua eskatutakoan adierazi beharko da zenbat pisaldi egin nahi diren. Zerbitzua erabili aurretik ordaindu beharko da.

Kuotaren arabera eska daitezkeen zenbatekoak Udalak likidatuko ditu, eskaeran adierazten diren pisaldien arabera.

Eskaera egin, fidantza jarri eta dagokion kuota ordaindutakoan, baskula erabili ahal izateko giltza bat emango zaio interesdunari. Giltza hori norberaren erabilerarako izango da, eta ezin izango zaio inori utzi.

Urtean 6 pisaldi baino gehiago:

Zerbitzua eskatzen denean hasten da ordaintzeko betebeharra.

Eskaera egin, fidantza jarri eta dagokion kuota ordaindutakoan, baskula erabili ahal izateko giltza bat emango zaio interesdunari. Giltza hori norberaren erabilerarako izango da, eta ezin izango zaio inori utzi.

Kuotaren arabera eska daitezkeen zenbatekoak hilabetero likidatu eta eskatuko dira egindako pisaldien arabera.

4. artikulua.- ZERGA KUOTA.

Tasa horregatik kitatu eta eskatuko den zenbatekoa ondorengo tarifaren arabera lortuko da:

- Fidantza: 6 €
- Pisaldi bakoitzeko, orokorra: **3,50 €**
- Pisaldi bakoitzeko, Gipuzkoako nekazaritzako ustiategien erregistroan Eskoriatzako ustiategi bateko titular gisa inskribatuta daudenek: 0,20 €

5. artikulua.- SORTZAPENA.

Tasa hau jarduera egindakoan sortuko da.

.6. artikulua.- SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

Tasa honen ordainarazpenari ez zaio ez salbuespenik ez hobaririk emango.

7. artikulua.- ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Tributuen arloko arau-hausteen kalifikazioari eta horiei dagozkien zehapenei dagokienez, Tributuen Lege Orokorean xedatutakoa beteko da.

Era berean, honako arau-hauste hauek ezartzen dira:

- a) Zergapekoa ez den beste edozein pertsonari pisatzeko aukera ematen dion edozein jarduera (arina).
- b) Giltza erabiltzea dagokion kuota ordaindu gabe, 5 pisaldi baino gutxiagorako eskaera egin denean. (pisaldi bakoitza arau-hauste arin bat izango da).
- c) Dagokion autolikidazioa ez egitea hilero edo iruzurrarekin egitea (arina).
- d) Baskulako giltzaren kopiak egitea (larria).

Arau-hauste horiek honako zigor hauek dagozkie:

- a) Hutsegite arinak: 50 euroko zigorra eta hilabete batean baskula erabili ezin izatea.
- b) Hutsegite larriak: 100 euroko zigorra eta hiru hilabetetan baskula erabili ezin izatea.
- c) Urte berean hutsegite arin bat baino gehiago eginez gero, 100 euroko beste zigor bat ezarriko da, eta hiru hilabetean baskula erabili ezin izatea. Zigor hori arau-hauste bakoitzagatik ezarritako zigor bakoitzari gehituko zaio.
- d) Arau-hauste larri bat baino gehiago eginez gero, denbora mugagabez gal daiteke baskularen erabilera.

13 ERANSKINA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA

14 ERANSKINA

ANIMALIAK EDUKITZEAGATIK ETA ZAINKETA ZERBITZUAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

15 ERANSKINA

ESKORIATZAKO TELEBANAKETA SAREARI LOTUNEA EGITEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO TASA

16 ERANSKINA

ZUBIATEKO LABEAN ZERBITZUAK (bisita gidatuak eta tailerrak) EMATEAGATIKO TASA

Zazpigarrena.-

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU
BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

**2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU BIDE PUBLIKOAREN LURRA, HEGALKINA
ETA LUR AZPIAREN ERABILERA PUBLIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO**
tasa izan ezik.

1 ERANSKINA

ERABILERA PUBLIKODUN LURRETAN ZANGAK ZABALDU EDO LUR AZPIA
AZTERTZEKO PROBAK EGITEAGATIK, ZEIN BIDE PUBLIKOAN ZOLADURA EDO
ESPALOIAK ALDATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

2 ERANSKINA

ERABILERA PUBLIKODUN LURRAK ZENBAIT MATERIALEKIN (MERKANTZIAK,
ERAIKUNTZARAKO MATERIALA, OBRA-HONDAKINAK, HESIAK, PUNTALAK,
ESKORATZE TRESNAK, ALDAMIOAK ETA ANTZERAKOAK) HARTZEAGATIKO TASA

3 ERANSKINA

ERABILERA PUBLIKODUN LURREN AZPIA HARTZEAGATIKO TASA

4 ERANSKINA

BIDE PUBLIKOAREN LURRA, HEGALKINA ETA LUR AZPIAREN ERABILERA PUBLIKO
EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASA

Tasa berri hau jaso:

Puestos de venta ambulante mediante Food Truck o gastrofurgos..... 100 € mes, o , en su caso, la parte proporcional por días. (suministro de agua y luz incluidos)

Food Truck edo gastrofurgoneta bidezko salmenta postu ibiltariak 100 € hileko, edo, bestela, horren zati proporcionala eguneko (ur eta argi hornidura barne).

5 ERANSKINA

IBILGAILUAK ESPALOIETATIK SARTZEAGATIK ETA APARKALEKU ESKLUSIBORAKO
EDO MERKANTZIEN ZAMAKETARAKO BIDE PUBLIKOA ERRESERBATZEAGATIK
ORDAINDU BEHARREKO TASA

2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario

6 ERANSKINA

MERKATUAN POSTUAK JARTZEAGATIKO TASA

7 ERANSKINA

**ZALDIBAR ANTZOKIA KULTURARAKO, EKITALDI POLIFUNTZIONALETARAKO,
AZOKETARAKO ETA EKITALDI PRIBATUETARAKO ERABILTZEAGATIK ORDAINDU
BEHARREKO TASAK**

Zortzigarrena

**UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN
ORDENANTZA**

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU

Bederatzigarrena.-

**ESKORIATZAKO UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERA EDOTA EKITALDI
SOZIOKULTURALETARA JOATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

2020an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU

**2020/10/20
Ezohiko Osoko Bilkura
Pleno extraordinario**

1.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Antes de pasar a tratar los asuntos incluidos dentro del orden del día, el Alcalde, tras pronunciar las siguientes palabras, pide guardar un minuto de silencio por el fallecimiento del concejal Iñaki Kerejeta Gorostiza: “*Gaurko batzordea albiste gogor eta triste batekin hasi behar dugu. Bide lagun aparta izan dugun Iñaki hil da. Heriotz goiztiar guztiak moduan guziontzat oso gogorra.. Hutsune handia uzten du. Goian Bego*”.

Trancurrido el minuto de silencio, se da traslado de las Resoluciones de Alcaldía dictadas hasta el día 13 de octubre de 2020.

2.- ACUERDO PARA LA CELEBRACIÓN PRESENCIAL O TELEMÁTICA DE LAS SESIONES DE LOS ÓRGANOS COLEGIADOS MIENTRAS DURE LA SITUACIÓN DE EMERGENCIA SANITARIA

Con fecha 2 de abril de 2020 el Pleno adoptó el acuerdo cuya parte dispositiva se transcribe literalmente a continuación:

PRIMERO.- Los Concejales y Concejalas podrán asistir a distancia a las sesiones del Pleno y al de la Comisiones Informativas del Ayuntamiento de Ekoriaztza, mediante videoconferencia u otro procedimiento similar mientras dure la situación de Estado de Alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionado por el Covid-19

SEGUNDO.- Las garantías esenciales que en todo caso debe observar el sistema de asistencia a distancia a las sesiones serán las siguientes:

- Que haya comunicación bidireccional entre el emisor y el receptor, y simultánea, de tal manera que ambos pueden emitir a la vez.
- Que dicha comunicación se dé como mínimo en alguno de estos aspectos: visual, auditiva y verbal, de tal manera que cuando se interrumpan todos se tendrá por interrumpida la comunicación.
- Que, en cualquier caso, se pueda participar a distancia en la sesión con los mismos derechos y obligaciones que presencialmente, con el fin de garantizar completamente los derechos reconocidos en el artículo 23 de la Constitución.

TERCERO.- La asistencia a distancia a las sesiones del Pleno y de las Comisiones Informativas se realizará mediante un sistema de videoconferencia u otro procedimiento similar que garantice la identidad del concejal o concejala, su participación en el debate de los asuntos a tratar en la sesión, el contenido de sus manifestaciones, el sentido de su voto y su libertad para emitirlo.

